

IRAKASKUNTZA-GIDA 2017/18

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa Zehaztugabea

IRAKASGAIA

25093 - Aholkularitza Psikologikoa

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Psikologia Kliniko eta Osasunaren Psikologiako Minorreko hautazko irakasgaia da, ikasleak counseling edo aholkularitza psikologikoan barneratzea helburu nagusi duena. Pertsonarengan oinarritutako laguntza harremana abiapuntu hartzen du diziplina honek arazo psikologiko eta harreman zailtasunei aurre egiteko, bai eta jokabide osasuntsuak sustatzeko.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Aholkularitza psikologikoaren ezaugarritzat hartzen diren funtsezko alderdiak ezagutzea.
2. Aholkularitza psikologikoaren eskaerak identifikatzeko gai izatea.
3. Helburuak definitzeko eta horiekin bat datorren oinarritzko jarduera-plana prestatzeko gai izatea.
4. Aholkularitza-estrategiak diseinatzeko, aplikatzeko eta ebaluatzeko gai izatea, hartzaileak esku hartzeko partaide bilakatuz.
5. Lanbide anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea.
6. Ahozko nahiz idatzizko txosten teknikoak egiteko gai izatea.
7. Psikologiaren betebeharrak deontologikoak ezagutzea eta horien arabera jokatzeko.
8. Aholkularitzako psikologikoari buruzko dokumentazio-iturriak erabiltzeko gai izatea, eta informazioa eskuratzeko behar diren estrategiak menderatzen direla erakustea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Gaia: Aholkularitza psikologikoaren definizio eta kontzeptua.
2. Gaia: Laguntza harremana aholkularitza psikologikoan.
3. Gaia: Pertsona arteko trebetasunak aholkularitza psikologikorako.
4. Gaia: Aholkularitza psikologikoaren prozesua.
5. Gaia: Aholkularitza psikologikoa esparru espezifikotan.

METODOLOGIA

Atal teorikoa klase magistral, materialen irakurketa, bideo eta talde aurkezpenen bitartez garatuko da. Gela praktika eta tailerretan binaka eta talde txikitan jorratuko dira atal praktikoaren edukiak:

- Autokontzientzia.
- Komunikaziorako jokaera eraginkorrak laguntza harremanetan.
- Ez-hitzezko komunikazioa.
- Arreta eman, behatu, entzun.
- Emozioak esploratzeko eta esplorazio kognitiborako trebetasunak.
- Berregituratze kognitiboa eta estrategia gestaltikoak kontzientzia hartzea sustatzeko.
- Ekintzetarako estrategiak: Ikuspuntu kognitibo-konduktuala.
- Esku-hartzea krisialdietan: Dolu ez-patologikoa.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	36	2	8				14		
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	54	3	12				21		

Legenda: M: Magistrala S: Mintecia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 20
- Test motatako proba % 40
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 30
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

ATAL TEORIKOA

Test moduko azterketa finala (azken kalifikazioaren %-eko 60a): hiru aukerako 30 galdera (erantzun okerrak zigortzen dira galderaren balioaren herena kenduz).

ATAL PRAKTIKOA

Atal praktikoaren ebaluaziorako aukeratu daitezke: a) ebaluazio jarraitua, edo b) amaierako ebaluazio bakarra.

a) Ebaluazio jarraitua:

- 11 praktikak burutu (gehienez 2 falta onartuko dira, nahiz eta justifikatuta izan) eta haiei buruzko banakako txostena gauzatu (azken kalifikazioaren %-eko 30a);
- talde-lan gidatuaren eratzeta eta aurkezpena (azken kalifikazioaren %-eko 10a).

b) Amaierako ebaluazio bakarra:

- banakako lana (aholkularitza elkarrizketa gauzatu eta aztertu), azterketa egunean aurkeztu behar dena (nota finalaren %-eko 20a);
- atal praktikoan jorraturiko materialei buruzko idatzizko azterketa (garatzeko galderak, nota finalaren %-eko 20a).

Atal teorikoa zein praktikoa gainditu beharko dira irakasgaia gainditzeko.

Amaierako ebaluazioa egin nahi duenak, idatziz aurkeztu beharko du ebaluazio jarraituari uko egiten diola, lauhilabetea hasi eta 9 asteko epean.

Deialdiari uko egiteko, ebaluazio jarraitua hautatzen duenak, irakasgaiaren eskola garaia amaitu baino hilabete bat lehenago egin ahalko du; eta amaierako ebaluazioa hautatzen duenak, aski izango du azterketara ez agertzearekin.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ohiko deialdiren irizpide berdinak jarraituko dira.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- . Bermejo, J. C. (2011). Introducción al counselling. Santander: Sal Terrae.
- . Costa, M., & López, E. (2003). Consejo psicológico: Una alianza estratégica para el apoyo, la potenciación y el cambio. Madril: Síntesis.
- . Irakasgaiaren apunteak.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Bermejo, J. C. (2011). Introducción al counselling. Santander: Sal Terrae.
- Costa, M., & López, E. (2003). Consejo psicológico: Una alianza estratégica para el apoyo, la potenciación y el cambio. Madril: Síntesis.
- Costa, M., & López, E. (2006). Manual para la ayuda psicológica: Dar poder para vivir, más allá del counseling. Madril: Pirámide.
- Gordillo, M. V. (2008). Nuevas perspectivas en orientación: Del counseling al coaching. Madril: Síntesis.
- Hough, M. (2011). Counseling: Teoría y práctica. Bartzelona: Eleftheria.
- Okun, B. F. (2001). Ayudar de forma efectiva (Counseling): Técnicas de terapia y entrevista. Bartzelona: Paidós.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Dallos, R., & Vetere, A. (2005). Researching psychotherapy and counseling. Maidenhead: Open University Press.
- Dyer, W. W. (2008). Técnicas efectivas de asesoramiento psicológico. Madril: Nuevas Ediciones de Bolsillo.
- Froján, M. X. (1998). Consultoría conductual. Madril: Pirámide.
- Gilbert, S. (2000). Counseling for eating disorders. London: Sage.
- Haynes, J. M., & Gretchen, L. (1997). La mediación en el divorcio: Estrategias para negociaciones familiares exitosas basadas en casos reales. Bartzelona: Granica.
- Hill, C. E. (2010). Helping skills. Washington: American Psychological Association.
- Hough, M. (1999). Técnicas de orientación psicológica. Madril: Narcea.
- Jiménez, F. (2003). La práctica del consejo psicológico: Manual del consejero no-directivo en 7 lecciones y 6 apéndices. Córdoba: Club Universitario.
- Juntunen, C. L., & Atkinson, D. R. (2002). Counseling across the lifespan: Prevention and treatment. Thousand Oaks, California: Sage.
- Madrid, J. (2005). Los procesos de la relación de ayuda. Bilbo: Desclée de Brouwer.
- Martorell, M. C., & González, R. (1997). Entrevista y consejo psicológico. Madril: Síntesis.

Miller, G. (2003). Incorporating spirituality in counseling and psychotherapy: Theory and technique. Hoboken, New Jersey: John Wiley & Sons.

Nicolás, L., & Andrés, R. (2000). Intervención psicológica en situaciones de emergencias y desastres. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Parrot, L. (2003). Counseling and psychotherapy. Pacific Grove, California: Brooks Cole.

Robles, J. I., & Medina, J. L. (2008). Manual de salud mental en desastres. Orientación psicológica. Madrid: Síntesis.

Worden, J. W. (2009). El tratamiento del duelo. Asesoramiento psicológico y terapia. Barcelona: Paidós.

Aldizkariak

Counseling Psychologist. Thousand Oaks, CA: Sage Publications Inc.

Journal of Counseling and Development. Alexandria, VA: American Counseling Association.

Journal of Counseling Psychology. Washington, DC: American Psychological Association.

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK